

**2016KO APIRILAREN 28AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita zortzi

HILABETEA: Apirila.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko martxoaren 22ko akta onartzeko proposamena.

2016ko martxoaren 22ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- XEHETASUN AZTERLANA. Zazpiturrieta, 4. Areako 4.1 UEko 3. 4. eta 5. Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.

Ezagutzera eman da hirigintza batzordeko proposamena, hau da:

“Gaia: Zazpiturrieta, 4. Areako 4.1 UEko 3. 4. eta 5. Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.

I.- 2016ko otsailaren 29ko datarekin, Alkateak ebatzi zuen Zazpiturrieta, 4. Areako 4.1 UEko 3. 4. eta 5. Xehetasun Azterlanari hasierako onespina ematea baldintzekin.

II.- Espedientea jendaurrean jarri zen, 2016ko martxoaren 2, 4 eta 3ko Berrian, Diario Vascon eta GAOean iragarkiak argitaratuz, hurrenez hurren. Legeak adierazten duen hogeitazazpi eguneko epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu..

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egin dio:

Lehenik. Zazpiturrieta, 4. Areako 4.1 UEko 3. 4. eta 5. Xehetasun Azterlanari Xehetasun Azterlanari behin betiko onespina ematea.

Bigarren. Erabaki honen berri sustatzaileari ematea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritziz hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Guk hirigintza batzordean azaldu genuen bezala guk uste dugu aurreko proiektua ere egingarria zela. Esaten ze n proiektu hori gauzatzeko zenbait baldintza bete behar zirela, baina gure ustez egingarria dela garbi dago eta kokapenari dagokionean ere lehengoa egokiagoa zen gure iritziz. Aurrera jarraitu izan balu, dagoeneko eginda egongo zen. Zazpiturrieta baino gorago iristen zen eta kokapenetik ere bertan egoteko eta igogailua hartzeko erosoagoa zen. Bestalde zenbait etxeren aldetik ere, bai gure ustez eta baita adituak diren kanpokoen jendeen iritziz eta bertan bizi diren jendeen iritziz etxebizitzetatik gertuago pasatzeek arazoak sortu ditzake intimitateari begira. Guk aurka bozkatu genuen hirigintza batzordean eta bertan mantentzen gara. Ez gaude igogailua ez egitearen kontra. Uste dugu eginda egon behar zuela, baina aurrekoa egokiagoa zela uste dugu.”

Alkate jaunak (EAJ_PNV): “Ez egitearena, teknikoaren txostenak dioen bezala egin beharreko lanek arrazoitzen zuten ez egitea. Behin hori entzunda, guk beste proposamen bat egiten dugu, teknikoaren esanetan hura nekezagoa zelako eta kostua ere handiagoa. Horrek eraman gaitu beste aukera bat bilatzea. Intimitate kontuak aipatzen dituzu, baina nik esango nuke badaudela Beasainen antzeko kasuan. Burura datorkit Oriamendi kaleko igogailua, zeren eta antzeko distantziara dago etxebizitzetatik. Intimitatea hautsi baino etxe baten alboan dagoenean, proiektua egin dutenek kontutan hartuko dutela adierazi dute eta pentsatzen dut hori bermatzeko moduan egongo garela.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (AEJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).
Aurkako botoak: 6 (EH BILDU).
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- INBENTARIOA. 2015-12-31eko udal inbentarioaren eguneratzea.

Ezagutzera eman da Hazienda batzordearen proposamena:

“

UDALA / AYUNTAMIENTO	Kostu historikoa Coste histórico	Amortizazioa Amortización	Neto kontablea/ Neto contable
ONDASUN HIGIEZINAK / BIENES INMUEBLES	60.314.338,97 €	6.220.218,04 €	54.094.120,93 €
ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES	19.637.470,18 €	5.630.607,00 €	14.006.863,18 €
TERRENOAK / TERRENOS	8.155.447,65 €		8.155.447,65 €
JOLASTOKIAK / PARQUES	5.218.190,59 €		5.218.190,59 €
BIALAK / VIALES	25.212.223,55 €		25.212.223,55 €
LANDA FINKAK / FINCAS RUSTICAS	33.108,27 €		33.108,27 €
AZPIEGITURA / INFRAESTRUCTURA	2.057.898,73 €	589.611,04 €	1.468.287,69 €
ERRENTA ESKUBIDEAK / DERECHOS REALES	1.251.408,23 €		1.251.408,23 €
BALORE MOBILIARIOAK / VALORES MOBILIARIOS	11.608.709,22 €		11.608.709,22 €
IBILGAILUAK / VEHICULOS	184.387,18 €	126.047,14 €	58.340,04 €
MOBLERIA / MOBILIARIO	3.354.989,80 €	2.277.932,22 €	1.077.057,58 €
ONDASUN ETA ESKUBIDE BIHUR. / CONC. ADMINIS.	1.093.027,00 €		1.093.027,00 €
GUZTIRA / TOTAL	77.806.860,40 €	8.624.197,40 €	69.182.663,00 €
ERAIKINAK ERABIL LAGAPENEAN / INMUEBLES	4.219.461,67 €		4.219.461,67 €

CEDIDOS			
LAGAPENEAN JASOTAKO ERAIK. / INM. RECIBIDOS EN CESION	343.677,54 €	37.789,40 €	305.888,14 €
	82.369.999,61 €	8.661.986,80 €	73.708.012,81 €

KIROLDEGIA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
ERAIKUNTZAK / CONSTRUCCIONES	439.165.89 €	0,00 €	439.165.89 €
MOBLERIA / MOBILIARIO	80.836,66 €	29.235,72 €	51.600,94 €
BALORE MOBILIARIOAK / VALORES MOBILIARIOS	100,00 €		100,00 €
GUZTIRA / TOTAL	420.102,55 €	29.235,72 €	490.866,83 €

MUSIKA ESKOLA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
MOBLERIA / MOBILIARIO	143.193,41 €	117.891,62 €	25.301,79 €
GUZTIRA / TOTAL	143.193,41 €	117.891,62 €	25.301,79 €

EUSKALTEGIA

	Kostu historikoa	Amortizazioa	Neto kontablea
MOBLERIA / MOBILIARIO	74.505,36 €	59.572,63 €	14.932,77 €
GUZTIRA / TOTAL	74.505,36 €	59.572,63 €	14.932,77 €

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- ORDENANTZA. Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatiko tarifa eta ur eta zabor tasen arloan laguntza emateko ordenantzari hasierako onespena ematea.

Alkatea jaunak (EAJ-PNV), ordenantza gai-zerrendatik erretiratzea eta hurrengo Plenora ekartzea proposatu du, udal taldeek hobetu aztertu dezaten.

Bildutakoek ados azaldu dira proposamen honekin.

5.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Pleguak onartzea eta deialdia egitea, ondorengoak kontratatzeko:

LOINATZ EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ETA ETXEZ ETXEZKO LAGUNTZA.

Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:*

1 Xedea: Loinatz eguneko zentroko erabilera eta kudeaketa:

Kontratuaren lehen urtea (eskaintzaren prezioa):

•Arreta astelehenetik ostiralera:

- 46,59 € plaza/egunean
- 15,10 € garraioa/egunean

•Arreta asteburu eta jai-egunetan:

- 55,14 € plaza/egunean
- 17,92 € garraioa/egunean

Kontratuaren 2. urtea:

•Arreta astelehenetik ostiralera:

- 47,40 € plaza/egunean
- 15,36 € garraioa/egunean

•Arreta asteburu eta jai-egunetan:

- 56,11 € plaza/egunean
- 18,24 € garraioa/egunean

Kontratuaren 3. urtea:

•Arreta astelehenetik ostiralera:

- 48,23 € plaza/egunean
- 15,63 € garraioa/egunean

•Arreta asteburu eta jai-egunetan:

- 57,09 € plaza/egunean
- 18,56 € garraioa/egunean

Kontratuaren 4. urtea:

•Arreta astelehenetik ostiralera:

- 49,08 € plaza/egunean
- 15,89 € garraioa/egunean

•Arreta asteburu eta jai-egunetan:

- 58,09 € plaza/egunean
- 18,88 € garraioa/egunean

2. Xedea: etxez etxeko laguntza zerbitzua:

Kontratuaren lehen urtea:

- 21,62 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 26,00 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Kontratuaren 2. urtea:

- 22,00 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 26,10 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Kontratuaren 3. urtea:

- 22,39 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 26,56 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Kontratuaren 4. urtea:

- 22,78 € orduko astelehenetik ostiralera.
- 27,02 € orduko asteburu eta jai-egunetan.

Esleipenaren prezioa lizitazioarena baino txikiagoa bada, 2.urteko prezioa eta hurrengokoak portzentaje berdinean gutxituko dira.

Lizitazio prezioan sartuta egongo dira gastu eta zerga guztiak, dietak, garraio gastuak, telefono gastuak, etab.

Prezio hauetan ez dago B.E.Z. sartuta.

4.- *Egikaritze epea*: lau urte bi urte gehiago (urtez urteko epealdiekin) luzatzeko aukerarekin

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak*:

a) Arrisku profesionalen kalte-ordainari erantzuteko 150.000€ko aseguruaren egiaztapena.

b) Titulu akademikoak eta profesionalak:

b.1) Enpresaren zuzendaritzako pertsonalak:

- Unibertsitate-mailako titulazioa
- Prestakuntza osagarria mendekotasunaren arretarekin eta/edo gerontologiaren arloan.
- Euskararen ezagutza kreditatzeko titulazioa.

b.2) Kontratua gauzatzeaz arduratuko diren pertsonak, zaintzako langileak:

- Erizaintzako zaintza osagarrietako teknikaria edo
- Arreta sozio-sanitariorako teknikaria edo
- Gizarte erakundeetan dauden mendeko pertsonen arreta sozio-sanitariorako profesionaltasun ziurtagiria Edo
- Pertsonen etxeko arreta sozio-sanitariorako profesionaltasun ziurtagiria.

Aipatutako egiaztapenik ezean egiaztatu gabeko mendekotasuneko profesionalen erregistroan izeba emana izatea.

b.3) Azken bost urteetan egindako lan edo zerbitzu esanguratsuen zerrenda kreditatua, prezioa, datak, eta zerbitzu horren hartzailea publikoa edo pribatua izan den zehaztuz. Lan horiek egiaztatzeke agiriak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, eskuduntza duen organoak emandakoak edo ikus onetsitakoak izango dira. Eta hartzailea pertsona pribatu bat denean, honek egindako ziurtagiri baten bidez, edo ziurtagiririk ezean, enpresako arduradunaren aitorpen baten bidez egiaztatuko dira.

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.eus). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen erdua*: Baldintza Administrazioaren pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 7,30etatik 14,30etara iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita 20 eguneko epean.

9.- Adjudikazio irizpideak:

1 Xedea: Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa:

1.- Proposamen ekonomikoa: Gehienez 30 puntu era honetan banatuta:

- Laguntza astelehenetik ostiralera 15p arte.
- Garraioa astelehenetik ostiralera 10p arte.
- Laguntza asteburu eta jaiegunetan 3p arte
- Garraioa asteburu eta jaiegunetan 2p arte.

Plegu honetako 3. Klausulan ezartzen den lizitazio prezioa gainditzen duen proposamenik ez da onartuko.

Prezio ekonomikoenari emango zaio puntuazio gehien. Gainerako eskaintzen puntuazioa zehazteko formula jakin bat aplikatuko da: prezio baxuenaren eta lizitatzailleak egindako eskaintzaren arteko zatidurak ematen duen emaitza, modalitate baitan aplikagarri den puntu kopuru osoarekin biderkatzea. Hau da:

$LP = (Eb/Le) * \text{modalitate bakoitzeko puntuazioa}$

LP= Lizitatzaillearen puntuazioa

Eb= Eskaintza baxuena

Le= Lizitatzaillearen eskaintza

Puntuazio guztia modalitate bakoitzean lortutako puntuak gehitzen egingo da.

2.- Esku-hartze proiektua: Gehienez 50 p.

- Laneko metodologia (20p)
- Pertsona erabiltzaileei arreta integrala bermatzeko zerbitzuak (15p)
- Zerbitzuaren ebaluaketa sistema (15p)

3.- Zerbitzua modu egokian emateko bermeak, enpresaren estruktura organizatiboa eta funtzionaltik eta pertsonalaren formazio osagarritik ondorioztatutakoak . Gehienez 15 puntu.

4.- Zentroaren mantentze plana. Gehienez 5 puntu.

2. Xedea: Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzua:

1.- Proposamen ekonomikoa: Gehienez 30 p., era honetan banatuta:

- Astelehenetik ostiralera, 25p arte.
- Asteburu eta jai egunak, 5p arte.

Plegu honetako 3. Klausulan ezartzen den lizitazio prezioa gainditzen duen proposamenik ez da onartuko.

Prezio ekonomikoenari emango zaio puntuazio gehien. Gainerako eskaintzen puntuazioa zehazteko formula jakin bat aplikatuko da: prezio baxuenaren eta lizitatzailleak egindako eskaintzaren arteko zatidurak ematen duen emaitza, modalitate baitan aplikagarri den puntu kopuru osoarekin biderkatzea. Hau da:

$LP = (Eb/Le) \times \text{modalitate bakoitzeko puntuazioa}$

LP= Lizitatzaillearen puntuazioa

Eb= Eskaintza baxuena

Le= Lizitatzaillearen eskaintza

Puntuazio guztia modalitate bakoitzean lortutako puntuak gehitzen egingo da.

2.- Esku-hartze proiektua: Gehienez 50 p.

- Laneko metodologia (20p)

- Pertsona erabiltzaileei arreta integrala bermatzeko zerbitzuak (15p)

- Zerbitzuaren ebaluaketa sistema (15p)

3.- Zerbitzua modu egokian emateko bermeak, enpresaren estruktura organizatiboa eta funtzionaltik eta pertsonalaren formazio osagarritik ondorioztatutakoak (20p)

1 eta 2 xedeetan lortutako puntuazioak gehituko dira.

10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

UDAL ERAIKINEN GARBIKETA.

Beasaingo udal eraikin eta lokalak garbitzeko zerbitzua prozedura irekiaren bitartez kontratatzeko deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa nahiz teknikoa onartuz.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Urteko lizitazio prezioa:* 284.084,47 € + %21eko BEZ.

4.- *Egikaritze epea:* hiru urte, beste hiru urte (urtez urteko epealdiekin) luzatzeko aukerarekin

5.- *Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak:* Kontratataren sailkapena egiaztatzeko dokumentua, jarraian adierazten diren kategoria, multzo eta

azpimultzoetako zerbitzuak kontratatzea gaitzen duena: **U multzoa, 1 Azpimultzoa, B Kategoria.**

6.- *Espedientea*: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.eus). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredia*: Baldintza Administrazioen pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua*: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 7,30etatik 14,30etara iragarkia, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera igorri eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 40 eguneko epean. Igorpen-data Estatuko Aldizkari Ofizialeko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko iragarkian adieraziko da.

9.- *Adjudikazio irizpideak*:

- Proposamen ekonomikoa: Gehienez 51 punturekin haztatuko da.
- Kalitate teknikoa: Gehienez 45 punturekin haztatuko da.
- Hobekuntzak: Gehienez 4 punturekin haztatuko da.
-

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua*: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak*: Lizitatzailerak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

6.- BEASAIN LANTZEN, S.A. 2015.eko urteko kontuen onespena.

Aurkeztu dira disolbatze prozesuan dagoen Beasain Lantzeneko 2015-12-31rekiko kontuak, memoriarekin batera eta ondorengo ondorioztatu da:

- Aktiboa: 12.600.649,01 €.
- Pasiboa: 12.600.649,01 €.
- Galera eta irabazien kontuak. Ekitaldiaren emaitza zergen ondoren (galerak): 484.288,18 €)

7.- UDALBATZARI KOMUNIKAZIOA. Egindako eragozpenaren aurka emandako Ebazpenari buruzko jakinarazpena.

Ezagutzera eman da Kontuhartzaileak egindako ondorengo txostena:

“Txosten hau, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratzailearen 218 artikulua xedatutakoaren agindupean igortzen da, honek ezartzen baitu

Udalbatzari helaraztearen beharra Toki Erakundearen Lehendakariak, egindako eragozpenen aurka emandako ebazpenen berri ematearen betebeharra:

1.- Aipatutako xedapenak dioena betez ondorengo ebazpenak zerrendatzen direla:

- B16/00204 ebazpena, Oinezkoen pasabidetan argiteria indartzeko hornidura eta instalazio zerbitzua emateko hornidurari buruzkoa.

2.- Jakinarazpen horrek puntu independente bat osatu behar duela dagokion Osoko Bilkurako gai-zerrendan.

3.- Korporazioaren Lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango duela Osoko Bilkuran.

8.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016-03-18tik 2016-04-23a bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2016-03-18tik 2016-04-23a bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.